

Euskal abizenen jatorria edota zuhaitz genealogikoa jakin nahi duten euskaldunentzat ezinbesteko tresna izango den web gunea jarri du abian Antzinako Elkartek. TESTUA Ibai Fernandez ARGAZKIA Fermín Pérez Nieves

Familiaren jatorria bilatzen

MUNDU globalizatu honetan, non sus-traiak historian galdu-rik gelditzen diren eta kultura arteko harremanen ondorioz herri nortasunak desagertzen ari diren, asko dira bere familia edo abizenaren jatorriaren bila hasi direnak. Euskal Herrian, historia luze baten ondorioz, asko dira bere sus-traiak ikertu dituzten herritarrek. Eta ez hemen bakarrik. Armarrak eta abizenen iturriak bilatzen dituzten elkarteak ugari egin dira azken urteotan mundu guztian zehar.

Antzinako Elkartearen kasua dugu hori. Udan sortu zen euskal abizenen jatorria bilatzeko asmoz eta orain web gune berri bat jarri du abian mundu guztiko euskaldunengana heldu nahian (www.antzinako.org). “Oraingoz hogeita hamar lagun baino ez gara, baina hazten goaz pixkanaka”, azaltzen du Conchi Ainciburu elkarte kideak.

Bost helburu nagusirekin jaio da Elkartea. Lehenik eta behin, lan egiteko aukera duten eremuetan tokiko historia eta genealogiaren ikerketa eta zabaltzea sustatu nahi dute, eta gero, bildu eta sailkatutako genealogi dokumentazio guzti hori publikoari hurbildu. Horrekin batera, genealogia ikertzeko beharrezkoak diren tresnak erabiltzen erakutsi nahi diete elkarte kide berriei; herri ondare dokumentalaren defentsan lagundu nahi dute eta tokiko historiarekin erlazionatutako aktibitateetan jendearen partehartzea sustatu nahi dute. “Norberaren familiaren istorioak bilatzera animatu nahi dugu jendea, horiek baitira azken finean herri eta herritarren historia”, azaltzen du Ainciburuk.



Korellako Arrese Jauregian agertzen diren ezku familiarrak.

Helburu horretarako ezinbesteko papera jokatu du urte berriarekin estreinatuta duten web guneak. Hala ere, internet eskura ez dutentzat, edota erabiltzen ez dakitentzat, sarean informazioa nola bilatu ikasteko jardunaldiak antolatuko ditu Antzinakok. “Sei hilabetero buletin bat kaleratzeko asmoa dugu eta gure ikerketarekin zer ikusia duen edozein ekitalditan parte hartzen saiatuko gara”, gai-

neratzen du elkartekideak. Baina hastapen guztiak zailak direnez, “pausoka” joan behar direla onartzen du Ainciburuk. “Lehenengo gure web gunea osatzen joango gara, eta hortik zaletasun berdina dutenak animatzen saiatuko gara”.

Euskal genealogiarekin erlazioa duten loturen bila dabilta oraingoz, eta leinuen inguruan egindako ikerketak aurkezten. Zentzu horretan, *Gen v-n* foroan hasitako eta Euskal

Abizenak atarian argitaratutako lana berreskuratu dute. Ekimen guzti hauek antzinako.org web gunean izango dira eskuragarri. Horretaz gain, genealogistezko zenbait atal ere izango dira, batzuk sartzeko publikokoak, eta beste batzuk bazkideentzat soilik. Antzinako Elkartearen ekimen honetan parte hartu nahi duenak e-mail bidali dezake info@antzinako.org helbidera. Bazkide kuota 10 eurokoa da.

150. ALERA HELDU DA 'JAKIN' ALDIZKARI EUSKALDUNA

1956an kaleratu zen lehen aldiz eta frankismo garaian 10 urtez izan zen itxirik

IRUÑEA. *Jakin* aldizkariak bere 150. alea kaleratu du. 1956an agertu zen lehen, aldiz frankismo bete-betean, eta geroztik bitanjaso du debeku administratiboa, guztira 10 urteko isilaldia pairatu behar izan duelarik. Franco hil eta gero, 1977an abiatu zen berriz eta harrez gero etenik gabe kaleratu da gaur arte.

“Pentsamendu eta kulturako aldizkaria da” *Jakin*-en arduradunen ustez. “Gogoetarako, kritikarako nahiz azterketarako parada eskaintzea da aldizkariaren egiteko nagusia. Kulturako eztabaida intelektualean panoramika eskaini nahi du, euskal kulturako nahiz munduko gorabeherak argitzeko asmoz”, azaltzen dute. *Jakin*-en sortzaileek euskara eta kultura uztartu nahi izan zituzten, eta asmo horri uko egin barik tinko eutsi dio oraingo zuzendaritzak.

Bi hilabetez behin kaleratzen da eta zenbaki gehienak gai baten jiran antolatu ohi dira “gai nagusia” atalean. Artikulu sakonak, bestalde, ohiko kolaboratzaileen lan arinagoekin elkarrosatzen dira. Urte hauetan guztietan aldizkariaren sail nagusietan era guztietako gaiak erabili dira, bai nazionalak eta baita ere nazioarteko eszenatokiko gertakarien ingurukoak. Ibilbide honi esker, erreferentzialtasun handiko aldizkaria da *Jakin*.

Lau artikuluk osatzen dute *Jakin* aldizkariaren aurtengo bosgarren zenbakia, 150.a hain zuzen. Hainbat gai ezberdin lantzen dira Anjel Lertxundi, Pako Sodupe, Jenaro Garate eta Juan Bautista Ben-goetxearen artikuluko horietan. >D.N.

Kritika

A. IRIZAR

KRITIKA > LITERATUA

Eta ametsa jolas bihurtu zen

Izenburuak: *Denak hasperenka* eta *Paradisuko almanaka*. **Jatorrizko izenburuak:** *La banda dei sospiri* eta *Lunario del paradiso*. **Egilea:** Gianni Celati. **Itzultzaileak:** Pello Lizarralde eta Fernando Rey. **Argitaratze urtea:** 2005. **Argitaletxea:** Igelia

EUSKARATUTAKO liburuen txoko honetara, oraingoa, Gianni Celati italiarraren bi liburu dakartzagu. Askorentzat ezezaguna bada ere, Europako idazlerik onetakoa dugu, hainbaten ustez, autore polifazetiko hau; idazlea, itzultzailea, unibertsitateko irakaslea, dokumental egilea... eta prestigio handikoa alor horietan guztietan. Oraingo liburuok, *Denak hasperenka* eta *Paradisuko almanaka* hain zuzen, *Parlamenti buffi* (Erretolika irrigarriak) izeneko trilogia bi ale ditugu; hirugarrena –saileko lehenadatorren urteko udaberrian izango dugu eskura. Trilogia izanik ere,

esan behar da obra independenteak direla; autoreak 70eko hamarkadan izandako bilaketa-prozesu baten emaitza, baina zein bere aldetik irakurtzeko modukoak.

Denak hasperenka liburuan Celatik “une oro etxetik kanpo inongo xederik gabe harat-honat dabilzan heroi burugabeak” ditu inspirazio-iturri. Halaxe dio autoreak berak, propio edizio honetarako idatzitako hitzaurre argigarriaren liburu bietan ageri da “Post-fazio-ne basca” izenburupean; horrelakoak, esan dezadan bide batez, oso eskertzeokoak dira. Bada, heroi burugabe horiekin ondo barre gozoak egingo ditu irakurleak; algarak ere bai tarteka, bai horixe. Hala ere, Celatik dioenez, ez dira barre programatu eta estrategikoak, baizik eta egia biribiletatik urruntzen laguntzeko modu bat.

Beste liburuan, *Paradisuko alma-*

naka izenekoan, gaztetan Alemanian egin zuen egonaldia hartzen du idazgai. Garai hartako bizipenak gogora etorri zitzaizkion modua islatzeko saioa da, hain zuzen. Memoriak, izan ere, gauzak puskaka eta zatika ekartzen dizkigu askotan, gogoratutakoak nahasiz eta bere kasa osatuz, amets-kutsua ezarri oroitzapenei. Bidaia hartatik gogora etorritakoak lotzeko eta josteko, inprobisazioa erabili zuen, eta, horretarako, kontaktatzen duenez, mendira ibiltzera joan eta handik bueltan hasten zen idaz-

Itzultzea beti bada zaila, are gehiago idazleak ahozko hizkera bere horretan paperera ekartzen duenean

ten, neka-neka eginda zegoenean. Emaitza, berak erabilitako irudia erabiliz, jazz musikaren moduko zerbait da, bai edukiaren aldetik bai formarenetik. Aurreko liburuak ere badu horretatik zerbait (ez dira alferrik trilogia bereko bi ale). Izan ere, narratzaileak aipatu arren “kontaktatzen dituenak ongi gogoratzen dituela, oroimenean hurbil balitu bezala eta ez urrun, eta gertatu ziren bezala kontatu nahi dituela”, esan behar da Celatik liburuak Estatu Batuetan zegoelarik idatzi zuela, eta, aitortzen duenez, kontaktatzen zituenak ongi ezagutzen bazituen ere, etxetik hain urrun egonda, ia ametsezkoak, alegiazkoak, bihurtuak omen zituen ordurako.

Denak hasperenka Pello Lizarralde itzuli du, eta *Paradisuko almanaka*, berriz, Fernando Reyk. Bi itzultzaile, eta bakoitzak bere

ñabardurak. Hala ere, liburuen arteko lotura ez duenez istorioak egiten, bi itzultzaileen arteko aldea, egia esatera, ez da nabarmentzen. Esan beharra dago, bestalde, itzultzea beti bada zaila, are lantegi zailagoa bihurtzen dela horrelakoetan, non idazleak, besteak beste, hizkuntza bera hartzen duen lehengai eta, adibidez, ahozko hizkera bere horretan paperera ekartzen saiatzen den: soldaduskan erabiltzen zuten hizkera arrunta, bere etxeko hizkera... Horrelako mugak, kasu batzuetan, gaindiezinak gertatzen dira, halabeharrez. Edonola ere, bestelako muga ugari gauditu dituzte hemen itzultzaileek, eta idazlearen beraren laguntza izan dute eginahal horretan. Luxua da hori itzultzailearentzat, eta, hein batean, irakurlearentzat ere bai, itzulpenaren berme baita.